

Baserritik plazara

Durangoko baserritarren azoka berriro zabalduko dute bihar, Eusko Jaurlaritzak debekua bertan behera utzi eta gero. Udalak neurri zorrotzak hartuko ditu segurtasuna bermatzeko • 8



Durangaldeko 20 lagun elkartasun sarea josten

Durangaldea | Josteko makina martxan ipinita, Durangaldeko hainbat lagunek maskarak egiteari ekin diote konfinamenduan. Jostea zaletasuna izan dute orain arte, baina egun hauetan lan bihurtu da eurentzat. Milaka maskara egiten dabilta osasun langileentzat. Abadiñoko, Durangoko eta Atxondoko 17 jostunek eta 3 laguntzailek osatutako sareak 2.500 maskara egin ditu egun hauetan. • 2-3.



“Neurririk eraginkorrenetako bat Pragako aireportua berehala ixtea izan zen”

Ainhoa Araujo Piron

Abadiñarra Txekiako Errepublikan • 7



“Testaren erantzunaren zain nengoela, hegaldia galdu genuen; negatibo eman nuen”

Jose Luis Bengoa eta Consuelo Gomil

Abadiñarrak Uruguain • 11



“Medikuek urteak daramatzate hau etorriko zela esaten”

Guillermo Quindós

Mikrobiologoa • 10

"Badakigu josten; beraz, zer gutxiago lehenengo lerroan dauden horiei laguntzea baino"

Abadiñoko, Durangoko eta Atxondoko 17 bat jostunek 2.500 maskara egin dituzte osasun langileentzat

ELKARTASUNA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Konfinamendua hasi zenetik, hainbat dira egunerokoan herritarrek egin behar dituzten lanak: telelana, umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, erosketak... Durangaldean sortu den jostun taldetxo batek beste zeregin bat gehitu dio bere eguneroko lanari: osasun langileentzat maskarak egitea. Orain arte, afizioz eta ondo pasatzeko josi izan dute, baina, azken hilabete honetan, jostea lana bilakatu da, euren borondatez egindako lana. Galdakaoko mediku batek material falta zutela esan zien lagun batzuei. Lagun horietariko bi, zerbait egin behar zela-eta, Abadiñoko Kakorraz taldeagaz hartu-emanetan ipini ziren. "Medikuek ez dutela babes neuririk... Ba, bakoitzak ahal duen heinean lagundu eta gure aletxoa ipintzen ahaleginduko gara pentsatu genuen", adierazi du Saioa Zuazubiskar Kakorraz taldeko kideak. Ordutik, eta birritan pentsatu barik, sare hau osatu duten kideek martxan dituzte josteko makinak. Hasieran, Kakorraz taldeko hainbat emakume hasi zen maskarak egiten, eta gertuko besteren bat ere bai. Orain, Abadiñoko, Durangoko eta Atxondoko hamazazpi jostun daude. Hala ere, taldetxoa ez dute jostunek bakarrik osatzen; koordinazioan dabilen hiru lagun ere badaude. "Zalantza izan genuen taldearen zabalkundea egin ala ez, baina ez genekien zenbat material izango genuen, eta, gainera, sarea zenbat eta gehiago zabaltu, horrek koordinazioa gehiago zailduko zuen; baita banaketa ere", adierazi du Zuazubiskarrek.

Orain lau bat aste ekin zioten lanari, eta bakoitzak zortzi bat maskara egin zituen etxean lehenengo astean. "Lehenengo aste horretan probazko maskarak egin genituen, baina hasiera gindozela gelditzeko esan ziguten. Gure maskarillek helburu jakin bat dute, osasun lagileentzat dira, eta, beraz, derrigorrezkoa da material homologatua erabiltzea. Material aproposa izan arte gehiago ez egiteko esan ziguten",

azaldu du Zuazubiskarrek. Berehala lortu zuten materiala, eta lehenengo txandan, astebetean, telazko 1.500 maskara egin zituzten. Hurrengo astean, telazkoak barik paperezkoak egin zituzten. 1.088 guztira. Orain, hirugarren txanda bat prestatzen dabilta.

Lanean dabilen gainerako beharginek lez, jostun hauek ere hainbat babes neurri hartu behar izaten dituzte maskarak egiteko orduan. "Guk erabili behar dugun materiala Bilbon moztzen dute, eta taldeko batek ekartzen du eskualdera. Ondoren, etxetik etxeko banaketa egiten da. Abadiñon, esaterako, udaltzaingoak banatzen du", esplikatu du. Behin materiala etxean dutela, desinfektatu egiten dute dena:

Lehenengo txandan telazko 1.500 maskara egin zituzten; bigarrenean paperezko 1.088

jasotako materiala, josteko makina eta mahai ingurua. "Lanean gabiltzala maskarak ipintzeko agindu digute azken asteotan. Paperezko maskarak egiten gabiltza, eta horiek ezin dira desinfektatu. Beraz, maskarak jantzita gabiltza lanean", esan du jostun abadiñarrak.

Bestalde, sare honetan zein beste hainbat saretan euren aletxoa ipintzen dabilen herritarren lana azpimarratu gura izan dute jostunek. "Gure kasuan, ezinbestekoak dira Bilbon materiala moztu duena, Durangaldera ekartzen duena, banaketa egiten duten udaltzainak eta dena koordinatzen dutenak. Eta beste sareetako jendea ere: Abadiñoko beste talde bateko jostunak, bere burua eskaini duen psikologoa, nagusiei janaria eta botikak eramaten dabilzanak... Triste da herritarrek horrela ibili behar izatea, benetan gestio-natu behar zutenek ez dutelako hau guzti hau gestionatu", amaitu du Zuazubiskarrek.



Saioa.



Miriam.



Amaia.



Ixiar



Arantza



Maite



Jose



Maite



Andone

**Osasun
langileentzat
maskarak egiten
dabiltzanak**



Amaia



Xabi



Leire eta Maddi



Rakel



Maria Jesus



Gema



Marije



Esther



Maribi



Ainhoa



Rosa Mari



ESKERRIK ASKO

Gogoratu:

- ESKUAK ONGI GARBITU
- SEGURTASUN DISTANTZIA MANTENDU
- ERABILI ETA BOTATZEKO ESKULARRUAK JANTZI
- EROSKETA AZKAR-AZKAR EGIN
- SAIATU ESKUDIRUTAN EZ ORDAINTZEN

Ordutegi berezia

Astelehenetik larunbatera



Gasolindegia 08:00etatik 15:00etara
Saltokia 10:00etatik 20:30era

Alcampo

Durango (Ctra Elorrio, Pol. Montorreta)

Kutsatzeak egonkortuta eta ospitaleratzeak gutxituta, langileen osasun segurtasunean dago orain kezka

Gutxitzen ari da Zainketa Intentsiboetako Unitateetan dauden gaixoen kopurua. Testa egin dutenen %13 inguruk eman du positibo asteen EAEn



Otxandioako anbulatorioa.

DATUAK • EKAITZ HERRERA

Eszenatoki nahasiaren aurrean datu "baikorrek" azaldu direla esan du asteen Osasun Sailak. Koronabirusari lotutako ospitaleratze kopurua gutxitu egin da eta baieztatutako kutsatze berriak kopuru baxuetan egonkortu dira. Miguel Sanchezek, Osasun Saileko plangintza arduradunak, prentsaurrekoa eskaini zuen eguaztenean eta bertan plazaratu zituen datuak. Astearen hasieran 1.341 lagun zeuden Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ospitaleetan ingresatuta; baina kopuru hori 1.276ra jaitsi zen martitzenean (57

lagun gutxiago). Zainketa Intentsiboetako Unitateetan ere beheranzko joera gertatu zen. Martitzenean zortzi gutxiago ziren ZIUn artatutako herritarrek. "Honek guztiak ospitaleetako egoera egonkortzea ekarri du, Nekane Murga Osasun Sailburuak adierazi duen lez. Gainera, horren erakusgarri dira orain arte hartutako alta guztiak: 5.428 izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan", azaldu du Sanchezek.

Bitarte horretan, kutsatze kopuruak modu leunagoan egin du gora. Astelehenean 291 ziren Durangaldean baieztatutako ka-

suak. Hurrengo egunean hiru gehiago baieztatu ziren, eta beste bi gehiago eguaztenean. Horrela, edizio hau ixterako, 296 ziren koronabirusagaitik Durangaldean baieztatutako kasuak. Herri nagusietan gertatu dira azkenengo kutsatzeak, Zornotzan eta Durangon, gehienbat. Mallabian ere lehenengo kasua atzeman dute asteen, eta baliteke Ermuagaz duen gertutasunak horregaz lotura izatea. Izan ere, martitzenean, kolpetik 80 kutsatu berri baieztatu ziren han. Edozelan ere, kutsatuen portzentajea beheranzko joerari

eusten ari zaio. Aurreko asteen testa egin zuen lautik batek eman zuen positibo, eta kopuru hori are eta gehiago txikitu da asteen. Testa egin zutenen %13 inguruk eman zuen positibo martitzenean.

Lana, kezka iturri

Espainiako gobernuak alarma egoera indarrean mantentzen duen arren, "hibernazio ekonomikoari" lotutako neurriak altxatu ditu asteen. Premiazko jarduerarik eskaintzen ez duten hainbat fabrikak lanari berrekin diote apurka-apurka. Herritarren batetik besterako

fluxua handitu egin da eta ikusteke dago estatistiketan aldaketarik eragiten duen hemendik egun batzuetara. Bien bitartean, sindikatuak kexu agertu dira. ELAren esanetan, Jaurilaritzak lanera joatera "kondanatu" ditu milaka langile, "nahiz eta arrisku egoeran egon". LABen iritziz, "patronalaren neurrira egingako konfinamendua" izaten ari da eta enpresa askotan segurtasuna bermatzeko neurriak falta direlako. Bestalde, CCOO sindikatuak datuen "itxaltze informatiboa" dagoela salatu du, eta Foru Aldundiei eskatu die zaharren egoitzetako datuak modu gardenean ematea, horiek kezkagarriagoak direlakoan.

Eskualdean leundu egin da kutsatuen gorakada. Astelehenean 291 ziren; eguaztenean, 296

Greba digitala

Euskal Herriko kulturgintzako profesionalak ere mugitu dira asteen. Manifestu bat kaleratu eta apirilaren 21ean eta 22an "greba digital" bat egitera deitu diete herritarrei. Egun horietan zehar kultura arloko edukirik Interneten ez zabaltzea eskatu dute. "Itxialdi sasoiotan, kultur ekimenak etenik barik zabaltzen ari dira sare telematikoetan eta hedabideetan. Sortzaileok, egoeraren jakitun, daukaguna herrikideekin esku zabaltasunez partekatzen ari gara, eta, oraingoa, trukean, kulturen balio sozialaz gogoeta egiteko eskatu gura dizuegu", adierazi dute. Durangaldeko sortzaile eta kultura arloko profesional askok babestu dute greba.

Ildo horretatik, Eusko Jaurilaritzak asteen iragarri du 2,5 milioi euro ipiniko dituela kultura arloko langileei laguntzeko.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko apirilaren 17a
18. urtea - 803. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



LAGUNTZA SAREAK DURANGALDEAN BEHARRIZANA DUTENENTZAT



ABADIÑO

Abadiñoako gazteen boluntario sarea:

655 712 433 eta **662 586 190**

10:00etatik 14:00etara hartuko dituzte eskariak

Boluntario sarean izena emateko:

685 709 347

Abadiñoako Udalaren laguntza sarearen telefono zenbakiak:

94 466 94 30 eta **688 679 414**

ATXONDO

Boluntario aritu gura dutenek izena emateko:

608 321 901 eta **685 713 187**

BERRIZ

Oinarrizko erosketak egiteko zailtasunak dituztenentzako telefono zenbakia: **685 752 311**

PSIKOLOGIA-LAGUNTZA telefonoz (10:00 - 12:00 / 17:00 - 19:00)

636 189 449 (nerabeak, helduak eta adinekoak)

645 732 388 (bikotekideak)

617 319 714 (haurrak eta adinekoak)

DURANGO

Boluntario taldeak auzoka antolatu dituzte:

638 102 424

durangoauzolana@gmail.com

ELORRIO

Laguntza behar duten pertsonak Elorrioko Udaltzainen bulegora edo **946 820 218** telefono zenbakira deitu, 12:00ak baino lehen

IURRETA

Laguntza behar duten herritarrentzako telefono zenbakiak:

ASTELEHENETIK - BARIKURA

10:00 - 14:00: **679 237 129** / **644 306 355**

16:00 - 20:00: **617 144 737** / **618 683 087**

ZAPATU-DOMEKETAN

10:00 - 14:00: **679 237 129** / **644 306 355**

Herritarren sarean boluntario izateko: **666 101 373**

MAÑARIA

Beharizana dutenentzako telefono zenbakiak:

94 681 89 98 / **654 653 176**

OTXANDIO

Otxandioko elkartasun sarearen telefono zenbakia beharizana dutenentzat zein boluntario izan gura dutenentzat: **648 023 531**

ZALDIBAR

Zaldibarko gazteen telefono zenbakia:

660 341 642

ZORNOTZA

Zornotzako Udalaren eta Gurutze Gorriaren sarea:

Boluntario izateko: voluntariadobizkaia@cuzroja.es edo

Herritarren Arreta Zerbitzuaren (HAZ) bidez

Zornotzako gazte taldearen laguntza sarea:

elkartasuna.zornotza@gmail.com

641 873 166

'Iturritxo Resort' kanpina: bizilagunen imajinazioak eta umoreak haize freskoa ekarri dute Abadiñoko Iturritxo kalera

Iturritxoko hainbat bizilagunek kanpin itxura eman diote kaleari, eta Aste Santuan geratu barik aritu dira, ekintza ugari eginez, egitarau eta guzti



'Iturritxo Resort' kanpineko irudi batzuk. Aste Santuko eguenetik astelehenera egon zen zabalik.

ABADIÑO • IGOR GALARZA

Hilabete baino gehiago da, Espainiako estatuko egoerari jarraiki, biztanleek konfinamenduari ekin ziotela Durangaldean. Asteotan, irudi eta une gogoangarriak jaso dira eskualdeko terraza eta balkoietan. Horietariko bat Abadiñon ikusi dugu, Zelaietako Iturritxo kalean. Bertako bizilagunek kanpin bat sortu dute: 'Iturritxo Resort' kanpina. Kanpinak Aste Santuan zabaldu zituen ateak, egunean, eta astelehenean zarratu. Udarako aste ugari geratzen diren arren, bizilagunek uda-giroa eta jai-giroa eman diote kaleari kanpina antolatuta.

Kale horretako sei bat lagunek ipini zioten zimendua proiektu herrikoi honi. Horien artean egon ziren Amaia Areitio, Itzazne Amesti eta Edurne Mendizabal. Arratsaldero elkar ikusten zuten, eta ideia hori bururatu zitzaizela azaldu dute. "Kaleko gehienok arratsaldero irriten dugu balkoira, lanean gogor

dabiltzanen esfortzua txalotzera. Bide batez, etxean zer egiten genuen kontatzen genion elkarri, modu umoretsuan. Kanpinera etorri ginela, eta hau eta beste", esan du Areitio. Horren harira, hainbat auzotarrek talde bat sortu zuten sare sozialetan, eta bloke bakoitzeko bizilagunek kanpinaren inguruko gai bati heldu zioten. Areitioren

Bloke bakoitzeko etxeak kanpin baten barruan dagoen elementu baten inguruan apaindu zituzten

blokekoek, esaterako, kanpinetako harrera bihurtu zuten euren aldea. "Ongi etorri" eta bestelako apaingarriekin jantzi zuten etxebizitzaren kanpo aldea. Beste etxebizitza bloke batzuetan, tirolinagaz, rokodro-

moagaz edo igerilekuagaz zerikusia duten apaingarriak erabili zituzten leiho eta balkoietan kaleari kanpin itxura emateko.

Amesti, esaterako, sorosle lanean aritu zen. "Besteak beste, kaleko bizilagunei igerilekuko ordutegia esatea zen nire eginkizuna. Eta baita 'Iturritxo Resort' kanpineko egitarauaren berri ematea ere. Bozgorailu baten bitartez egiten nuen", azaldu du.

Egitarau eta guzti

Kanpina sortu ez ezik, Aste Santurako egitarau bat egitea ere bururatu zitzaien auzotarrei. Abadiñon San Prudentzio eta San Trokaz jaiak bertan behera geratuko dira, eta, jai gosea asebetetzeko, Iturritxokoek disko festak, antzerkiak, bermut ordua eta galtzontzillo eta kulero lasterketa ere antolatu zituzten. "Horiek guztiak, jakina, kalera irteten barik egin genituen. Bakoitzak etxe barruan edo terrazetan eraman du ekintza aurrera, sinbo-

likoki", adierazi du Mendizabalek. Egitarauko ekintzak auzokideek sortutako taldean partekatzen zituzten, argazkiak elkarri bidalita.

"Geratu barik" aritu izan direla kontatu dute hirurek. Mendizabalek esan du "bazkalorduren bat edo beste ere salto" egin dutela etxean. Izan ere, goizez zein arratsalde, ideia zerrenda amaigabea izan dute

Kanpinak bizilagunen "hartu-eman estuagoa" sortzeko balio izan duela nabarmendu dute

Iturritxokoek, eta guez errelebotan aritu izan dira musika ipintzen. Areitiori "ziztu bizian" joan zaizkio Aste Santuko egunak: "Konturatu barik, jaietako zerbait egiten nabilela, txaloak entzun, burua altxatu, eta iluntzeko zortziak

gainean nituen". Mendizabalek aitortu du umeentzat baino kasik gurasoentzat egin zutela gehiago kanpina. "Umeei berez joan zaizkie arin egunak. Gure etxean orain ez dute eskola buruan, edo normalean egiten duten kirola", gaineratu du. Kanpinak, eta horrek sortutako giroak, kaleko bizilagunen "hartu-eman estuagoa" sortzeko balio izan duela azpimarratu dute hirurek. Auzotarrek sasoi gogorretan ondo pasatzeko izan duten "inplikazioa" nabarmendu du Amestik.

Kopako finalari begira

Oraingoz, 'Iturritxo Resort' kanpinak ateak zarratu ditu, baina kanpineko bizilagunen jardunak ez du geratzeko itxurarik. Asteburu honetan Athleticek eta Realak Espainiako Kopa jokatu behar zutela-eta, etxetik irteten barik Sevillara bidaiatzeko asmoa dute. Imajinarioa beharrezkoa den sasoiotan, gura adina haize freskoren iturri da Iturritxo.

“Txekiako Errepublikan giltzarria izan da maskaren erabilera higieneagaz eta isolamendu sozialagaz konbinatzea”

Txekiako Errepublika da Europako herrialdeen artean koronabirusaren pandemiari ondoen eusten dion herrialdeetariko bat. Martitzenean, 6.059 kasu baieztatu baino ez zeuden herrialde osoan; Ainhoa Araujo abadiñarra han bizi da



duta dugu kalera irtetea. Gehienez lagun bik irten dezakegu batera, eta ezinbestekoa da maskara erabiltzea. Pragako erdigunean bizi naiz. Parke handi bat dago nire etxe ondoan, eta ikusten dut herritarrek zehatz betetzen dituztela neurriak. Jendeak zelanbaiteko lasaitasunez bizi du egoera hau. Ez dago histeria zantzurik.

Jokabide eta jarrera horiek zein isla dute kutsatuen eta hildakoen indizeetan?

Aste honen hasieran (martitzenean), baieztatutako 6.059 kasu zeuden Txekiako Errepublika osoan. Batez bestekoaren azpitik gaude. Polonian ere hemengo antzera daudela dirudi. Dena dela, datuak ezin dira erabateko ziurtasunez interpretatu.

Euskal Herriko osasun langileek hainbat bider salatu dute babes ekipamenduak falta dituztela. Txekiako Errepublikan ere gertatu da halakorik?

Ez, ez da horrelako arazorik egon. Are gehiago: Txekiako Errepublikak osasun material dezente bidali die dohaintzan Espainiari eta Italiari. Ospitaleetan ez da saturaziorik egon. Beti izan dira oheak libre.

Badirudi Txekiako Errepublikak Euskal Herriak eta beste hainbat herrialdek baino hobeto eutsi diola pandemiari. Zergatik ote?

Hemen hartutako neurriak eraginkorrenetariko bat Pragako aireportua berehala zarratzea izan zela esango nuke. Oso arin itxi zuten. Urtarrilaren 30ean jada bagenekien txinatarrek ez zutela Txekiako Errepublikara bidaiatzeko aukerarik. Gerora, martxoaren 12an, guztiz zarratu zuten aireportua. Ezinezkoa zen Pragatik irtetea. Eta herritarren batek Espainiatik edo Italiatik hona itzuli behar izanez gero, hamabost egunean egon behar zuen etxean isolatuta. Bestalde, informazioa ere funtsezkoa izan

da. Giza Baliabideetako eta Lan Istripuen Prebentziorako Sailek hainbat hitzaldi informatibo eskaini zituzten enpresetan zein bulegoetan. Jokabide protokoloak diseinatu ziren, baita eskuak zelan garbitu behar ziren azaltzeko ere. Horrez gainera, maskaren erabilera aipatu beharra dago. Giltzarria izan da herritarrek babesteko. Botiketan maskarak saltzeari utzi zioten eta herritarrek etxean egiteari eta josteari ekin zieten. Bufandak ere erabili izan ditugu ahoa eta sudurra tapatzeko. Laburbilduz, nire ustez hauek izan dira gakoak Txekiako Errepublikako osasun sistema ez kolapsatzeko: aireportua arin ixtea, herritarrek jasotako informazioa eta formakuntza, eta maskarak erabiltzea.

“

Hemengo neurriak eraginkorrenetariko bat Pragako aireportua berehala zarratzea izan zela esango nuke”

—

Sintomarik ezean maskara ez zela behar esaten zen hemen. Orain, baina, denek erabiltzea "gomendagarria" dela diote agintariek. Txekiako Errepublikan egon al da modulaziorik maskararen diskurtsoan?

Hasieratik derrigorrezkoa izan da kalera irteteko. Isun handiak zeuden. Dena dela, urgentzietan lan egiten duen mediku bategaz partekatzen dut etxea, eta hark dioenez, maskara, bere horretan, ez da izan giltzarria. Giltzarria izan da maskararen erabilera higiene onagaz eta isolamendu sozialagaz konbinatzea. Hiru neurrien konbinazioa izan da giltzarria. Gero, bada beste kontu bat ere. Jenderik gehienak bulegoetan lan egiten du hemen. Ez da horko moduan. Ez dago industria handirik edo automozio piezen ekoizpenik. Horrek ere erraztu du jendea etxera bidaltzea eta kontrol neurriak hobeto segitzea.

TXEKIA • EKAITZ HERRERA

Ainhoa Araujo Piron (Abadiño, 1980) Pragan bizi da, Txekiako Errepublikako hiriburuan. Lan kontuak direla-eta, bost urte daramatza han bizitzen. Txekian derrigorrezkoa izan da maskarak erabiltzea, hasieratik. Araujok dioenez, horixe izan liteke herrialdeak pandemiari hobeto eutsi izanaren

arrazoiatariko bat. Maskaren derrigorrezko erabilera higie eta isolamendu neurriekin konbinatu dituzte han.

Txekiako Errepublika nahiko txoko urruna da Durangaldetik ikusita. Apenas dugu horko informaziorik. Zein da horko egoera koronabirusaren krisian?

Kontu handiz ari gara jokatzeko. Egia esan, herritarrek arduratsuak dira. Osasun krisia hasi zenetik hona, gobernuak etengabeko komunikazioa mantendu du herritarrekin. Mugikorretara aldiro-aldiro heltzen zaizkigu mezuak. Eta herritarren jokabidean ere ikusten dut ardura hori. Hemen baimen-

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

Salmenta telematikoa

ESKAERAK

• e-postaz:
info@hitzliburudenda.com

• WhatsApp-ez:
686 214 964

• Telefonoz:
94 681 0776 (8:00etatik 14:00etara)

ORDAINKETA

• Banku-transferentzia bidez.
• BIZUM bidez.

Bidalketa gastuak **4,90 €**
izango dira.

* fardelaren tamainaren eta pisuaren arabera aldaketa izan dezake



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Durangoko baserritarren azoka zabalduko dute zapatuan, erosle eta saltzaileen segurtasunerako neurriak ipinita

Joan zen asteburuan, Jaurilaritzak bertan behera utzi zuen aurretik ezarritako debekua; horrela, Durangoko Udalak azoka berriro zabaltzea erabaki du



Durangoko merkatu plazaren irudia.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Eusko Jaurilaritzak herrietako azoka debekatzeko erabaki zuen, eta horrek hainbat ekoizle, eragile, baserritar, sindikatu eta alderdi politikoren haserrea piztu zuen. Azoka hauek udalek arautzen dituztela kontuan hartuta, hainbat herritan egin zituzten, neurri zorrotzak hartuta. Ondarroan edo Eibarren, besteak beste. Testuinguru berri honetan, Durangoko Udalak merkatu plazan antolatzen den azoka egitea erabaki du, zapatu honetan hasita.

Baserritarrek pozik hartu dute erabakia. Durangaldeko Soloko nekazari ekologikoen elkarte-koek eskerrak eman dizkiete Durangoko merkatu plaza berriro ere zabaltzea posible egin duten guztiei. "Eskerrik asko abiatu dugun sinadura bilketagaz bat egin duzuenoi. Eskerrak, benetan, plaza zarratuta egon den lau asteetan zehar gugaz hartu-emanetan ipini eta gure produktuak kontsumitzen jarraitu duzuen denoi", azaldu dute baserritarrek.

Baserrietako jeneroa merkatu plazako postuetan salgai egongo dela gogoratu dute baserritarrek: "Merkatu plazan ikusiko dugu elkar. Gura duenak eskura izango dituguk ekoizten ditugun jakiak, osasun berme guztiekin, zuzenean baratetik zuen eskuetara, bertokoa, ekologikoa eta sasoiakoa".

"Osasun Sailari uneoro jarrera kontsekuentea izaten ahalegintzeko eskatzen diogu, merkatu horien atzean euren egunerokotasuna arriskuan ikusten duten pertsonak daude eta", azaldu du Durangoko gobernu taldeak. Publikoarentzako salmenta ordutegia 09:00etatik 13:00etara izango da, eta ekoizleek euren kanal propioak prestatuko dituzte ohiko erabiltzaileen artean, salmenta aurreratua sustatzeko eta erosketatik bizkorragoa izateko.

Udal arduradunek azaldu dute segurtasun eta osasun neurri guztiak hartuko dituztela merkatua berriro zabaltzeko. Horretarako, udalak zirkuitu bat prestatu du, sarrera eta irteera independente

bategaz, eta atzera egiteko aukerarik barik, erosleak euren artean gurutzatu ez daitezzen. Postuak bananduta egongo dira eta postu bakoitzak mahai bi izango ditu gehienez.

Durangoko EAJk prentsa oharrean azaldu duenez, azoka zabaltzea "positiboa" da. Hala ere, saltzaileen eta erosleen segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea eskatu du. Ildo horretatik, tokiko ekonomia bultzatzeko proposamen bat lantzen dabilela aurreratu du.

Elorrioko azoka

Azoka ixtea erabaki aurretik, Elorrioren dauden hiru nekazariren produktuak Anbotope dendan saltzea landu zuen udalak. "Baserritarrek bermatuta izan dute produktuak saldu eta erosteko eskubidea, Anbotopen. Aldaketa honegaz, berriro ere hartu-emanetan ipini gara baserritarrek, ezer erabaki aurretik eurekin egon gura dugulako", dio Idoia Buruaga alkateak.

Iker Barrainkua durangarrak Euskal Ligako FIFA20 txapelketa irabazi du Eibar taldea ordezkatzuta

Gu Ere Bai Euskal Selekzioaren aldeko erakundeak eta Game Erauntsiak antolatutako bideo-joko txapelketa irabazi du



Iker Barrainkua durangarra bere etxean bideo-jokoetan jokatzen.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Orain aste batzuk, Iker Barrainkua 26 urteko durangarrak ez zuen imajinatu ere egingo Futboleko Euskal Liga irabaziko zuenik, eta gutxiago etxetik irten ere egin barik. Joan zen

domekan jokatu zen Euskal Liga, FIFA20 bideo-jokokoa, eta Hamaika Telebistak zuzenean emititu zuen.

Final gatxa izan arren, garaipena eskuratu zenuen.

Aurreko fase batean, finaleko aurkari beraren kontra galdu egin nuen eta ez zen erraza izan. Hala ere, partidu hark bere jokoa ezagutzeko balio izan zidan. Aurrekoan min handia egin zidan hegaleta-

tik eraso eginda eta area barruan aurrelari bat izanda. Finalean 2-1 irabazi nuen azkenean. Egia esateko, bigarren gola partiduen azkenengo txanpan heldu zen, baina neuk izan nuen aukerarik gehien

partiduan zehar, eta irabaztea merezi izan nuela uste dut.

Partidua Hamaika Telebistak eskaini zuen. Ingurukoek animatu zintuzten? Kuadrillakoak Hamaika Telebistan ikusten egon ziren. Gainera, partidua ahozko txat batean eman zuten. Txat hori atzerapen apur batez zebilen eta amaitu nuenean azken minutuak ikusten zeuden. Oihuka entzuten nituen. Hori ere dibertigarria izan zen.

"Neuk izan nuen aukerarik gehien partiduan, eta irabaztea merezi izan nuela uste dut"

Honelako txapelketa batean, finalera heltzea itxaroten zenuen?

Ez. Zelako maila nuen jakin gura nuen, eta horrexegaitik parte hartu nuen gehienbat. Lehenengo eta bigarren faseak gainditu nituen eta final aurrekoetan Osasunaren aurka 5-2 irabazi nuen.

Bideo-jokoak entretenigarriak izango dira konfinamendu egunetan.

Bai, egun hauetan gehiago jokatzen ari naiz bideo-jokoetan. Aurretik, asteburuetan jokatzen nuen gehienbat. Aste bitartean ere jokatu izan dut inoiz, oposaketak prestatzen nabil eta.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



**Guillermo Quindós
Andrés**

Mikrobiologian
katedraduna

MIKEL MTZ DE TRESPUENTES (UPV/EHU)

“Zientzialariek, eta bereziki medikuek, urteak daramatzate hau etorriko zela esaten”

Konfinamendua ezarri baino egun bat lehenago, Guillermo Quindósek 'Un par de verdades sobre el coronavirus' berbaldia eskaini zuen EHU. Luze aritu da COVID-19 gaitzaren pandemiaz Hirukak egindako elkarrizketan

ZIENTZIA • HIRUKA

Egoera honek ez du aurrekaririk. Zertan da desberdina birus hau?

Koronabirus bakoitzak bere ezaugarriak ditu. 60ko hamarkadan ezagutu genituen lehenengoeak arnasbideetako sintoma arinak sortzen zituzten: hotzeria, katarroa... Oso-oso gutxitan eragiten zuten pneumonia, hau da, gaitz larria. Tira, eta segitzen dute urtero jendea gaixotzen. Neguan ditugun hamar hotzeritatik bizpahiru koronabirusek eragiten ei dituzte, baina normalean ez dira diagnostikatu ere egiten. Geroago ezagutu genituen beste koronabirus bi, SARS eta MERS. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina biek eragiten dute arnasbideetako gaitz akutu eta larria. Oraingo hau, SARS-CoV-2, SARSaren oso antzekoa da, berdina du genomaren %80 inguru.

“

Gripeak urtero eragiten du ospitaleak betetzea, baina koronabirus honek hori gainditu du

—

Baina...

Honek zer du? Gripea eragiten duten birus gehienak bezain kutsakorra da gutxi gorabehera; kutsatzen diren hamarretik 8-9k sintoma arinak edo ertainak dituzten arren, beste 1-2k ospitaleratzea behar dute, sintoma larriak dituzte eta. Eta horien artean, beharbada hamarretik batek ZIura joan behar du. Hau da, gaixotzen diren guztien %0,5. Asko zabaltzen den birusa izanda,

portzentaje horiekin gainezka egin dezake ospitaleetako osasun-arretak. Eta badakigu zein den horren emaitza: gaixoak korridoreetan, kasu larri batzuk ezin neurri eraginkorrenagaz tratatzea... Gripeak urtero eragiten du ospitaleak betetzea, baina honek hori gainditu du. **Eta kasu larri gehiago eragin...**

Urteroko gripeak kasu larri gutxiago eragiten ditu, arrazoi sinple bigaitik: bata txertoak ditugula, eta bestea gripearen aurkako botikak ditugula. Baina ez daukagu tratamendu espezifikorik oraingo koronabirus honen aurka. Tratamendu asko erabiltzen ari dira, baina ez dakigu zer balio duen bakoitzak. Erabili ahala egiten dira proba klinikoak. Edozelan ere, litekeena da urtebete barru txertoa izatea.

Rafael Bengoa Osasun sailburu ohiak elkarrizketa batean esan zuen zazpi urte behar izaten direla txerto bat garatzeko. Fidatu behar dugu urtebetean garatzen denaz?

Txerto baten garapenak zazpi urte iraun dezake, efektu kaltegarrien edo immunizatze-gaitasunaren gaineko datu guztiak batzeko behar den denbora kontuan hartzen badugu. Baina txertoa denbora laburragoan garatu daiteke. Ebolarena 18-24 hilean lortu zen, oker ez banago. Beste kontu bat da ondoren galbahe batzuetatik pasatu behar izatea, baina uste dut oraingo egoeran, immunizatze-ari eta segurtasunari dagokienez baldintza jakin batzuk beteko

lituzkeen txerto bat erabiliko litza-tekeela.

Futbolaz berba egin ordez, epidemiologiak berba egiten dugun honetan “zoonosi” esaten ere ikasi dugu. Hau da, animaliangandik gurgana igarotzen diren gaixotasunak. Izan dira mende honetan horren adibideak: aipaturiko MERS eta SARS, A gripea, hegazti-gripea eta abar. Ezin zitekeen hau aurreikusi?

Denok geunden abisupean. Osasunaren Mundu Erakundea (OME) aspaldi dabil X pandemiak ohartarazten. Hau da, prest egon behar genuen honelako zerbait ailegatzeko. Are gehiago, X pandemia ia seguru animaliangandik helduko dela esanda dute.

“

OME aspaldi dabil X pandemiak ohartarazten. Hau da, prest egon behar genuen honelako zerbait ailegatzeko”

—

Zergaitik?

Argi dagoelako agertzen ari diren gaixotasun berriak (infekziosoen ari naiz) zoonosiak direla. Jakinaren gainean geunden, argi dago. Zientzialariek, eta bereziki medikuek, urteak daramatzate hau etorriko zela esaten. Baina egunez egun bizi gara, edo, zehatzago esateko, gure

agintariak egunez egun bizi dira, ekonomiaren zenbakiak doitzeko ahaleginean, eta batzuetan, doiketa hori egiteko, osasungintza eta batez ere ikerkuntza ahultzen dituzte.

Animaliangandik kutsatzea erraza da, behin hartu-emanetan ipinita?

Ez, ez da hain erraza. Bakterio eta birus batzuek animaliak zein gizakiak gaixotzen dituzte, eta seguruena oso aspalditik gizakiak kutsatzen dituzten espezie batzuk animaliangandik etorriko zitzaizkigun. Beste espezie batzuk, oster, animalia bati egokitzen zaizkio, eta aldaketa edo mutazioen bat behar izaten da gizakiengan infekzioak eragin ahal izateko. Ondorioz, aukera gehiago dago hain egonkorak ez diren bakterioek edo birusek zoonosia eragiteko, eta normalean ARNz egindakoak izaten dira eze-gonkorrenak, koronabirusak esate baterako.

Hau bada X pandemia, zer pentsatu behar dugu Y pandemiak? Beldurtu behar genuke?

Ez dakigu zer gertatuko den, baina lasaitasun-mezua eman behar da; pandemia honetaz asko ikasten ari gara eta geroago eta prestakuntza handiagoa dugu. Bide batez ikusten ari gara nahi izanez gero beste gauza batzuei ere buelta eman diezaikegula, klima-aldaketari esaterako. Eta horrek ere badu honegaz zerikusia, tenperatura globala handitzeak eta deforestazioa areagotzeak lagundu egiten baitute gaixotasun infekziosoen gora egin dezaten.

“Espainiatik nentorren emakumea nintzela eta kalean nenbilela argudiatuta, pertsona batek salaketa anonimoa ipini zidan”

Jose Luis Bengoa eta Consuelo Gomil Uruguain daude etxera itzuli ezinik; han gertatutakoagaz "liburu bat idazteko lain" dutela dio bikoteak

URUGUAI • JONE GUENETXEA

Consuelo Gomil Peluffo uruguaiarra den arren, bizitza erdi baino gehiago darama Durangaldean. Jose Luis Bengoa Madariaga senarra eta biak Uruguaira joan ziren martxoaren 7an, Consueloren ama bisitatzeraz. Harrezkero gertatu zaiena amesgaiztoa izan da.

Jose Luis eta Consuelo, zelan zaudete?

Consuelo Gomil: Ondo gaude. Badugu etxea hemen, eta nire ama gai-xorik dagoenez, beragaz egoteko aprobetxatzen ari gara. Hala ere, azken asteotan gertatu zaiguna oso gogorra izan da.

Martxoaren 7an joan zinetenean, zein plan zenuten?

C.G.: Amak 90 urte ditu, eta bera bisitatzeraz etorri ginen. Itzultzeko hegaldia apirilaren 21erako hartu genuen. Etorri ginen egunean, koronabirusa dela-eta gauzak lasai zeuden Euskal Herrian. Gero gertatu zen guztiagaz, apirilaren 21eko hegaldia bertan behera gelditu zen.

Zein aukera eman zizueten bueltatzeko?

Jose Luis Bengoa.: Hegazkin bat ipini zuten martxoaren 28rako, Uruguaitik itzuli gura genuen denontzat. Hegaldi hura hartzeko asmoa genuen.

“**Aukera eman ziguten Guyana Frantsesera hegazkin militar batean joateko, eta handik gure kontura Parisera**”

Zer gertatu zen hegaldi hori ez hartzeko?

C.G.: Egun batzuk lehenago sukarraren izan nuen eta klinika batera joan nintzen. Temperatura hartu zidaten eta ezelango testik egin barik koronabirusa nuela esan zidaten. Ez nuen beste sintomarik. Nik banekien ez zela horrela. Seguru nengoen aire egokituak egin zidala kalte. Baina nire adina eta sukarra kontuan hartuta, medikuak koronabirusa zela esan zidan. Kontsulta hori 400 euro kobratu zidaten. Testa egin gura nuen, baina esan zidaten ZIUkoei baino ez zirela egiten.

Etxera joan zinen, eta polizia ere etxetik pasatu zen.

C.G.: Egunean bertan, klinika horrek salaketa ipini zidan eta polizia etxera etorri zitzaigun berrogeialdia egin behar nuela esateko. Hegaldia zain genuenez, nire kontura test bat egitea erabaki nuen. Kontua da asko tardatu

“**Tenperatura hartu zidaten eta ezelango testik egin barik koronabirusa nuela esan zidaten**”

zutela emaitzak ematen, eta ezin izan genuen hegaldia hartu.

Zein izan zen emaitza?

C.G.: Negatibo eman nuen, jakina. Negatiboa baieztatu barik, hegaldiaren egunean ez genuen aireportura joateko asmorik. Hala ere, polizia gure bila ibili zan han ere. Uruguaira heltzeagaz batera, salaketa anonimo bat jaso zenuen, Consuelo.

C.G.: Espainiatik nentorren emakumea nintzela eta kalean nenbilela argudiatuta, pertsona batek salaketa ipini zidan modu anonimoan. Koronabirusa ekarriko nuen beldurrez? Ez dakit.

Jendearen elkartasuna ere sentitu duzue.

C.G.: Gure eguneroko botikak lortzea ez da erraza, eta San José Hiriko lagun batzuen bitartez lortu ditugu. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Argentinan duen ordezkariak asko lagundu digute.

Eta orain zer egingo duzue?

J.L.B.: Aukera eman ziguten Guyana Frantsesera hegazkin militar batean joateko, eta handik gure kontura Parisera. Ez genuen onartu, ez dagoelako modurik Paristik Euskal Herrira joateko, eta ez dugulako bidean harrapatuta gelditu gura.

Zein eragin izan du koronabirusak Uruguain?

J.L.B.: 10.000 test egin dituzte eta 550 kasu atzeman dituzte Uruguai osoan. Momentu honetan, neurriak ezarri beharrean, gobernua aholkuak ematen ari da. Garraio publikoan joateko, maskarak banatzen dituzte. Hemen udazkena dator orain, eta beste gripea hasten denean ez dakigu zein izango den egoera.



Jose Luis Bengoa eta Consuelo Gomil Uruguain daude etxera itzuli ezinik; han gertatutakoagaz "liburu bat idazteko lain" dutela dio bikoteak



Gure ikasleen ahotan



“Metodologia aktiboak eta dinamikoak erabiltzen ditugu”

Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Hezkuntzara bitarteko etapak Elorrioko Herri Ikastetxean egin nituen. Batxilergoa, osteraz, Durangoko Frai Juan Zumarraga institutuan, eta egun Eskoriatzako HUHEZI fakultatean ari naiz gradua egiten. Nire zaletasunei dagokienez, hurrekin ikastea zein hauei irakastea dut gogoko. Baita dantza egitea, bizikletan ibiltzea eta mendira joatea ere.

Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Lehen Hezkuntza gradua egin gura nuela argi izan dut txiki-txikitik. Izan ere, hezkuntza sistemak ez ditu haur guztien beharriak asetzen, ezta guztien ongizatea bermatu ere. Hori dela-eta, hezkuntzan parte hartu gura nuela erabaki nuen, eragile aktibo eta positiboa izateko asmotan. Inguruko unibertsitateetatik Mondragon Unibertsitatea iruditu zitzaidan egokiena, bertan ditugun aukera anitzengatik.

Zelan baloratu zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso esperientzia positiboa izaten ari da. Orain dela hiru urte, Eskoriatzan hasi nuen gradua eta hezkuntzaren ikuspegia aldatzea lortu dut, baita nire ikuspegi propioa poliki-poliki eraikitzen joatea ere. Hortaz, fakultatea astiro-astiro hainbat baliabide

eskaintzen joan da, etorkizun hurbileko hezitzaile naizenean beste haur batzuek nigan bizi ez dezaten nik bizi izandakoa.

Zelan definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Berritzaile, sortzaile, eraldatzaile, kritiko eta euskaldun gisa definituko nuke. Metodologia aktiboak eta dinamikoak erabiltzen ditugu. Gradua hasi nuenetik hona, hainbat aldaketa sumatu ditut; hau da, testuinguruak izan dituen beharriaren arabera era batera edo bestera moldatzen joan gara, beti ere euskalduntasuna ardatz izanik.

Unibertsitateetik zer da gehien gusatzten zaizuna eta gutxien?

Gehien, bertako egiteko era; irakasleek ikasle bakoitzaren inguruan egiten duten jarraipen pertsonalitatea eta hurbila azpimarratzekoa da, baita ikaslearen artean dugun harremana ere. Gutxien, osteraz, etxe ondoan ez izatea; hasieran, joan-etorri hauetara ohitzea kostatu zitzaidan.

Etorkizunari buruz, zeintzuk dira zure asmoak?

Gizartea aldatzeko jasaten doan heinean, hezitzailearen ingurua ere aldatzen doa; hortaz, etengabeko formakuntza ezinbestekoa dela deritzot. Hori dela-eta, gradua amaitzen dudanean masterra ikasten jarraitzeko asmoa dut, hizkuntzak baita ere, eta bestelako formakuntzak.

“Euskal Herrian kokatu gura nuen istorioa, eta Guy Ritchieren lehenengo pelikulen kontatzeko moduan idatzi”

Umore dosi handiagaz, Zigor Goitiandia zornotzarrak Aitorren, Forresten eta Marcopoloren abentura kontatzen du martxo inguruan publikaturiko eleberrian

ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

Zigor Goitiandia zornotzarrak bere lehenengo nobela argitaratu du: 'El Camaro Destartado'.

Nondik dator liburu hau idazteko ideia?

Gogoa nuen umorezko istorio bat egiteko, baita modu berezi batean idazteko ere. Aspaldi, Jaroslav Haseken *Las aventuras del buen soldado Svejk* liburua irakurri nuen, eta haren antzerako zerbeit egin gura nuen. Umorea erabilita, oso kritika gogorra egiten dio I. Mundu Gerrari. Euskal Herrian kokatu gura nuen nire istorioa, eta Guy Ritchieren lehenengo pelikulen kontatzeko moduan idatzi gura nuen; asko gustatzen zait bere egituraketa anarkiko hori, hasieran zerikusirik ez duten pertsonaiak zelan elkartzen dituen eta abar. Sekuentzia laburrak idatzen joan nintzen, bertan pertsonaia berriak sartuz, eta umore beltzeko istorio hau geratu zait. Kritika soziala ere sartu dut.

Kontakizuna garaikidea da, beraz.

Istorio garaikidea egin gura nuen hasieratik. Baina teknologia berrien garaia ekidin gura nuen, Internetek edo praktika polizial berriek asko baldintzatuko luketelako kontakizuna. Istorioa 80ko eta 90eko hamarkadetan kokatzen da. Horrek aukera ematen dit modernitate batzuk sartzeko, eta pertsonaia batzuen bitartez *flashback*ak erabili ditzaket. Horrela, II. Mundu Gerran ere kokatu dezaket. Lehenengo garai hura bizi izan zuten pertsonaiak eta gaur egungoa bizi dutenak nahastu gura izan ditut. Hizkuntza aldetik asko ekonomizatu dut; ekintzen bitartez deskribatu gura izan dut. Guy Ritchieren modu anarkikoari jarraitzen ahalegindu naiz istorioa



Zigor Goitiandia Estankona

Idazlea
Zornotza | 1975

Zigor Goitiandia, liburuaren eskuetan duela.

kontatzerakoan. Tarantinoren edo Cohen anaien ereduak ere gertu izan ditut. Amaieran guztia leher-tu arte irakurleak istorioa zertaz doan ondo ez ulertzea gura nuen. Orduak igaro ditut lotura guztiak egiteko, ez dago ezer zintzilik. **Erabiltzen dituzun erreferentziengaitik, zein adin tarteko irakurleentzat idatzi duzu?**

“**Zornotzako Billikenen, Durangoko Urriken eta Hitzzen eta Elkarreko dendetan dago salgai liburu**”

ZIGOR GOITIANDIA

Uste nuen 30 urtetik gorako jendearentzat izango zela batez ere, baina erreferentziengaitik eta erabiltzen dutan kaleko hizkuntzagaitik, nagusiek ere gustura irakurri dutela esan didate. Gehiago harritu nau gazteek ere gustura irakurri dutela entzuteak. Gazteak harritu egiten dira eta eleberrian agertzen diren pertsonaia edo egoera asko existitu

ote ziren galdetzen didate, ea zer dagoen fikziotik eta zer errealtetatik. Asko dokumentatu naiz lan hau egiteko, fikzioa izan arren, eta umoretik idazten dudan arren, benetako oinarri bat dago.

Beste nobela batzuk ere idatzi dituzu, baina hau da argitaratu duzun lehenengoa.

Beste hiru liburu dauzkat idatzita, baina publikatu barik. Lehenengoa fantasia epikozko nobela bat zen. Beste biak beldurrezkoak dira, eta akziozkoak. Erdi Aroan kokatzen dira eta horietako batek banpiroak ditu. Orain dela gutxiokoak dira, eta karga soziala dute, baita paralelismoak ere, izan ere, banpiroak eta odol xurgatzaileak orain ere badi-tugu (barrez). Ondo pasatzen dut idazten, eta lagunek ondo pasatzen dute nire lanak irakurtzen. Azken lan hau publikatzeko hobea zela iruditzen zitzaidan, baina originalagoa delako, forma zein estilo aldetik. Beste bat idazten ari naiz orain, oposaketengaitik geldi eduki dudana. 600 bat orrialde ditut idatzita, eta beste 200 bat geratzen zaizkit. Hau ere Erdi Aroan dago kokatuta, eta hor bai, hor gatzago egiten zait originalagoa izatea.

Musikaria ere bazara. Zein soinu banda ipiniko zenioke istorioari?

Musika talde asko agertzen dira liburuaren protagonista punkiaren jakako partxeetan: AC/DC, Deep Purple, Led Zeppelin, Eskorbuto, Sociedad Alkoholika, MCD... baita musika zaharragoa ere bai, Chuck Berryrena, adibidez. Tabernetan ere musika hori agertzen da, girotzeko.

Non erosi daiteke liburu?

Zornotzako Billiken liburudendan, Durangoko Hitz eta Urrike liburudendetan, Elkarren, eta neure kontura ere saltzen ditut. Liburu digitalalean kaleratzea ere gura nuke.

iragarki
laburrak
.eus

Hemen
eta
online

Botikak

BARIKUA, 17 · 09:00-09:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 18 · 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-13:30
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASTZA
DOMEKA, 19 · 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
ASTELEHENA, 20 · 09:00-09:00
SARRIA Sasikoa 17- DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MARTITZENA, 21 · 09:00-09:00
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUAZTENA, 22 09:00-09:00
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUENA, 23 · 09:00-09:00
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 21° / 11°	☁️
DOMEKA 🌧️ 15° / 12°	☁️
ASTELEHENA 🌧️ 17° / 11°	☁️
MARTITZENA 🌧️ 18° / 9°	☁️
EGUAZTENA 🌧️ 13° / 10°	☁️
EGUENA 🌧️ 13° / 10°	☁️

Zorion Agurrak



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Aimar!** Aimarrek apirilaren 19an zazpi urte egingo ditu. Zorionak danon partez eta, batez ere, Anerren partez.



Zorionak, **Axier**, zure familiaren partez. Egun atsegina izan dezazun opa dizugu, nahiz eta etxean ospatu behar. Baimena ematen digutenean elkarrekin ospatuko dugu. Besarkada handi bat!



Zorionak, **Uxia** eta **Malen!** Disfrutau pilo bat zuen egunek. Musu handi bat hirugarren solairutik!



Zorionak, **Agurtzane!** Espero dogu egun zora-garrixeko eukitzea. Zure magiaren falta igarten dogu. Musu erraldoi bat bihotz-bihotzez.



Apirilaren 13an eta 17an **Inmak** eta **Mariak** euren urteguna ospatuko dute. Elkarregaz ospatzeko apur bat itxaron beharko dugu oraindino. Hala ere, ahalik eta egunik onenak pasa! Zorionak!



Gozatu ahal duzunaz ondo pasa ene laguna topa zugaitik **Aare** kuttuna eta maitasuna!



Zorionak, **Maitane** zure aita, ama, Josu eta Asierren partez! Zure eguna ahalik eta ondoen pasa! Mosu handi bat!



Uxue Artiñanok 14 urte egin ebazan apirilaren 13an! Zorionak etxeko danen partez!

Pasta challenge



Garaiko **Alazne** Unzueta ren pastak irabazi du #PastaErronka. Zorionak, Alazne!

Ideiak astindu eskuak arindu

Meriendatzeko... hontza?!



1. Tomateak erditik egin eta ogi xerra baten gainean igurtzi. Nahi izanez gero, gatz apur bat eta olio eman. **2.** Letxuga hostoak garbitu, lehortu eta tomate igurtziaren gainean jarri. **3.** Ondoren, gazta (nahiago izanez gero, urdaiazpiko egosia). **4.** Eta azkenik, bigarren ogi xerra ipini gainean. Begiak egiteko, arrautza egosia (bi xerra) eta oliba beltzak (bi erdi) erabiliko ditugu. Soberan gelditu zaigun zuringoaz, mokoa egingo dugu.



Osagaiak: tomate gorriak, letxuga hostoak, oliba beltzak, arrautza egosia, gazta, gatz, oliba olio, moldeko ogia (bi xerra), oliba beltz hezur gabeak.. Denbora: arrautza egosteko, 10 minutu. Sandwicha egiteko, 5.



5. Hegalak itxuratzeko, bi ebaki egingo dizkiogu sandwichari. Erreparatu irudiari. Atzaparrak, bestalde, oliba zatiz egin daitezke.



Hontzaren ordeztu beste edozer ere irudika daiteke sandwichean. Honokoa, zulo bat egin diogu gaineko ogi xerrari, eta tartean txorizoa jarri dugu. Hortzak diruditen horiek gazta zatiak dira, belarriak arrautza, bekainak oliba zatiak eta ilea letxuga hostoak.

ESKULANA

Eskumuturrekoak, malgukien tankeran

Komuneko paperaren erruloek eskulanerako aitzakia ugari ematen dute, gauza jakina denez. Kasu honetan, eskumuturrekoak egiteko erabiliko ditugu. Zerorrentzat edo oparitzeko.

MATERIALA:

- Komuneko paperaren erruloa.
- Errotulagailuak edo margoak.
- Tipp-ex edo antzekoa.
- Guraizeak.



1



2



3

1. Komuneko paperaren erruloak hartu eta pentsatu zer-nolako marrazkiak egin nahi dizkiozun. Kolore zuria beharko bazenu, tipp-ex erabiltzea zenuke hoberena.
2. Errulo hauetan bina kolore erabili ditugu: ezkerrekoan berdea eta laranja, eta eskuinekoan, beltza eta zuria. Errotulagailuz eginez gero, berehala bukatuko duzu, margoa lehortzen uzteko lanik ez.
3. Guraizea hartu eta moztu, alde batetik hasi eta beste alderaino, espiralean.

4. Malguki itxurako zerbait lortuko duzu.
5. Eskumuturreko oso zabala nahi ez baduzu, erditik moztu eta puska bakarra jantzi.



4



5

"Kaltetuena New York izaten ari da, baina Floridara ere astindu itzela etorri daiteke"

Aperribai-Plaza familia Floridako Orlando hirian bizi da; Koronabirusaren zabalkundea ardura handiz bizi dute

FLORIDA • EKAITZ HERRERA

Juan Luis Aperribai iurretarra eta Eva Plaza durangarra Floridako Orlando hirian bizi dira 1983tik. Lan kontuek hara eramanda (Juan Luis zesta-punta jokalaria zen), han eraiki zuten bizimodua. Eta han jaiotakoak dira Iker eta Gorka semeak. Juan Luis Aperribaik AEBetan gertatzen dena kontatu du.

AEBak dira koronabirusa munduan gehien kolpatzen ari den herrialdea. Zein da horko egoera?

Kaltetuena New York izaten ari da, baina, esaten dutenez, Floridara ere astindu itzela etorri daiteke. Izan ere, hiritar asko New Yorketik Floridara lekualdatu ziren orain lau aste. Pentsa, egun normal batean hogeitaz egazkinetik gora heldu ohi dira New Yorketik hona. Baina orain lau aste, egun bakoitzean 100dik gora etorri ziren. Hau da: jendea New Yorketik alde egiten hasi zen. Orain dena gelditu dute, baina hilabete honetan zerbaitek potoloa etorri daitekeen kezka dago.

Zeintzuk dira koronabirusari aurre egiteko Floridan hartutako neurriak? Premiazkoak ez diren jarduera guztiak eten dituzte. Komertzio txikiak, tabernak, dentisten kontsultategiak, gimnasioak,... horiek zarratuta daude. Baina ez dituzte eraikuntza arloko lanak geratu. Supermerkatuek zabalik segitzen dute. Baita burdindegiek ere. Etxean gelditzeko agindua dugu hemen. Parkeak zarratuta daude. Berdin saskibaloi kantzak ere, baina auke-ara dugu bizikletan ibiltzeko eta pa-

sean irteteko. Banaka edo binaka egin daiteke gehienez. Hondartzen kasua ere berezia da. Izan ere, Daytonan, adibidez, autoa ia hondartzaraino bertaraino sartu daiteke. Baina hondartza parean etxea izan arren, ezin zara hondartza ibili.

Txinak dio AEBek sartu zutela koronabirusa han. Donald Trumpek, ostera, egunak daramatza koronabirusa "birus txinatar" modura definitzen.

Hemengo gobernuak ez du oraindino mezu ofizialik eman. Ez du esan birusa handik edo hemendik datorrenik. Baina Interneten edo zer topatu dezakezu. Batzuek diote dirua kontrolatzen duten aberatsak

“

AEBetan osasun aseguruia pribatua da eta milioika herritar dago halakorik barik”

—

direla arduradunak. Batek daki. Niri, dena dela, kosta egiten zait hau merkatu batetik eratorritako zerbaite dela sinestea. Hau ondo muntatutako zerbaite den irudipena dut. **Euskal Herrian doako osasun sistema publikoa dugu, baina AEBetan oso bestelakoa da kontua.**

Hemen, erretiroa hartutakoan, gobernuak osasun kobertura bat eskaintzen dizu. Gainerakoan, pribatua da dena. Bakoitzak bere osasun aseguruia izan behar du,



eta hori ez da batere merkea. Urte baterako osasun frankiziaren truke 5.000, 6.000 edo 8.000 dolar ordaindu behar dituzu, eta jakina, milioika herritar dago halakorik barik. Sekulako triskantza muntatu liteke. Pobrea bazara, propietaterik ez baduzu, eta ospitalera bazoaz, artatuko zaituzte. Eta ez dizute ezer kenduko, hain zuzen ere horregaitik: ez duzulako ezer. Baina asegururik eduki ez eta propietateren bat baduzu, etxea, adibidez, bada hori kenduko dizute. Eta zer gertatzen ari da hemen koronabirusaren inguruan? Ba, ez dugu informazio askorik. Dioskuen bakarra da testak egiteagaitik ez dutela kobratuko.

Konfinamendua hasi zenean, Euskal Herriko jendeak komuneko papera

erruz erosi zuen. Hor ere gertatu al da halakorik?

Hemen komuneko papera eta ur botilak, biak agortu izan dira. Ura kan bat gertatzen den aldiro ur-hornidura kaltetzen denez, herri-

“

Armen salmentagaz gertatutakoa harrigarria da, marka guztiak apurtu dituzte”

—

tarrek supermerkatuetako ura erosteko joera dute. Orain ere hori gertatu da. Desinfektatzaileak eta gel hidroalkoholikoak ere amaitu

dira. Osasun langileen babes ekipamenduekin ere horko antzerakoa gertatzen ari da. Osasun langileek maskara eta baliabide falta salatzen dute.

Armen salerosketa hazi egin dela diote.

Harrigarria da. Marka guztiak apurtu dituzte. Zerbaite neurrigabea da. Batzuek diote koronabirusak soka luzea ekarriko duela, eta go-setea, lapurretak eta segurtasun falta handituko direla. Horri aurre egiteko ideia modura erosi ohi dituzte armak. Gobernuak 1.200 dolarretik gorako txekuek banatu ditu etxeetan, baina herritarrek egunean egunekoari erreparatuta bizi dira. Negozioak itxiko direla, lana faltako dela,... kezka handia dago.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa